

Gurasoentzako gutuna

Guraso agurgarriok,

Ongi etorri *My Home Booklet*-era! **Kid's Box 5**-eko unitate bakoitza eskolan bukatu ondoren, zuen seme-alabak *My Home Booklet* etxera eramango du ikasi duena zuei erakusteko.

Lagundu ahal izateko, ez da beharrezkoa ingeleseko maila altua izatea. Garrantzitsuena, egin duenagaitik interesa erakustea eta beharrezkoa denean laguntza ematea da. Honek bere ikasketa prozesuari mesede egingo dio.

My Home Booklet-eko 9 irakasgaietako bakoitzak hurrengo jarduerak barrneratzen ditu:

Lehenengo orrialdeko ariketek irakasgaiko hiztegi eta gramatika

garrantzitsuena lantzen dute. Garrantzitsua da umeak egin beharrekoa ulertzen duela ziurtatzea eta modu autonomoan lan egitera bultzatzea. Ariketak amaitzen dituen heinean, erantzunak irakurtzeko eskatu. Akatsen bat dagoela ohartuz gero, ez esan berehala, izan ere, ozenean irakurriz askotan bera bakarrik ohartuko da akatsaz. Horrez gain, gaiarekin zerikusia duten galderak egin ahal dizkiozue ingelesez edo berari buruz hitz egitera animatu dezakezue, egoki denean.

Bigarren orrialdeko lehenengo jarduerak irakurketa eta idazketa dute

helburu. Irakasgai bakoitzak testu mota desberdin bat landuko du. Lehenik, irakurketa labur batekin, irakasgai ikasitako hiztegia landuko da eta ulermenezko ariketa erraz bat proposatzen da. Ikasleak testu hau eredu bezala erabiliko du hurrengo jardueran bere testua idazteko. Jarraian dagoen ariketa, Activity Book-ean landutako testuaren ezaugarri konkretu batean kontzentratzen da, adibidez, puntuazioan, adjektiboan erabileran, edo hitzak silabatan banatzean. Azkenik, 3. jarduerako eredia aintzat hartuz, ikasleak antzeko testu bat idatziko du irakasgai ikasitako hiztegia erabiliz. Idatzi aurretik ondo pentsatzera animatu, edo bere koadernoan testuaren zirriborro bat egiteko eskatu *My Home Booklet*era garbira pasatu aurretik.



Kid's Box

Azken ariketa autoebaluazioko ariketa bat da. Zuen seme-alabari “I can...” esaldiak irakurtzeko eskatu, eta esaldiak egiazkoak diren pentsatzeko. Ariketa bakoitza egiteko erabiltzen duen gaitasuna adierazten duen aurpegitxoa koloreztatu behar du.

Oharra: *Basic competences Progressen*, orrialdearen beheko aldeko aurpegitxoan ondoan agertzen diren ikonoek landutako Oinarrizko Konpetentziak adierazten dituzte, Lehen Hezkuntzako kurrikuloak eta Europako Kontseiluak ezartzen duen era berean.

- 1 Ahozko komunikazioa
- 2 Gaitasun matematikoa eta oinarrizko gaitasunak zientzia eta teknologian.
- 3 Gaitasun digitala
- 4 Ikasten ikastea
- 5 Hiri eta gizarteko gaitasunak
- 6 Iniziatibazko zentzua eta espiritu ekintzailea.
- 7 Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.

Azkenik, *My Home Booklet*-en amaieran, *Picture dictionary* bat dago, hau da, irudizko hiztegi bat, non zure seme-alabak irakasgaiko hiztegi garrantzitsu guztia bere hizkuntzara itzuliko duen. Gainera, *Spelling* deitutako atal bat dago, eta bertan *Pupil's Book*-ean landutako ortografia eta soinuak berrikusi eta praktikatuko ditu.

*My Home Booklet*en zuen seme-alabarekin batera lan eginez ongi pasatzea espero dugu!

Zuen seme-alabaren ingeleseko irakaslea.

